

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

**KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA**

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## NKGIk laguntzen deialdia egin du bigarren urtez, Nafarroako toki-erakundeek garatutako kirol-instalazioen planetarako

*Eskaerak bihartik hasi eta ekainaren 27ra bitarte aurkez daitezke*

Astelehena, 2018.eko maiatzak 28

Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak (NKGI) 30.000 euroko laguntza-deialdia onartu du, toki-erakundeek Kirol Instalazioen Plana egiteagatik sortutako gastuak partzialki ordaintzeko. Eskaerak bihartik hasi eta ekainaren 27ra bitarte aurkez daitezke.

Deialdia [gaur](#) argitaratu da NAOn, eta, bertan, protokolo bat ezartzen da instalazioen eta jardueren planak egiteko. Hiru fase ditu: lehenengoan egoera errealari buruzko datuak jaso behar dira, hots, instalazio bakoitzaren mantentzerako azken 5 urtetan jarritako aurrekontuaren zerrenda; denboraldi horretan instalazio bakoitzean egindako jarduera errealak; kirol-instalazio bakoitzaren kontserbazio-egoeraren deskribapena; eta eragin-eremuko hirigintza-planoa, instalazioen eta ikastetxeen kokapen eta guzti.

Era berean, bigarren fasea jardueren programazioari eta plangintzari buruzkoa da, eta ondorengoak sartzen dira: datozen urteetan garatu nahi diren etorkizuneko jardueren analisia; toki-erakunde eskatzaileak datozen 5 urtetan burutu nahi dituen jarduera fisikoen eta kirol-jardueren plana eta programa; garatu nahi den antolakuntza-eredua; eta egindako jarduera-planerako datozen urteetan jarriko den aurrekontuaren balioespena.

Hirugarren fasean, berriz, funtzionamendu-planaren analisia eta diseinua burutuko dira; alegia, dauden instalazioek dituzten edukiera eta aukeren azterketa eta balorazioa; kirol-espazioetan defizitak hautatzea; horiek estaltzeko analisia; eta instalazioen plana egitea antzemandako premien eta biztanleriaren etorkizuneko prospektiben arabera.

Ez dute diru-laguntzarik izango ezarritako protokoloa osatzen ez duten kirol-instalazioen planek eta NKGIko Garapen Estrategiko, Azpiegitura eta Baliabideen Kudeaketako Zuzendariordetzako langile teknikoek onartutakoek.

Laguntza-eskaerak Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko Erregistroan aurkeztuko dira (Arrieta kalea, 25. 31002 Iruña), Legeak ezarritako edozein [aurkezpen-lekutan](#), edo Erregistro Orokor Elektronikoan, Nafarroako Gobernuaren ondorengo [web orrialdearen](#) bidez.

Halaber, eskaerak postaz aurkeztu ahal izango dira. Kasu horretan, interesatuak dagokion frogagirirekin egiaztatu beharko du posta-bulegoan bidalitako eguna, eta egun berean proposamena bidali duela iragarri

beharko dio diru-laguntzaren organo kudeatzaileari, telefaxeaz edo telegramaz, edo helbide honetara e-maila bidalita: [infraestructuras.deportivas@navarra.es](mailto:infraestructuras.deportivas@navarra.es).